

|                             |                                                                                                                               |
|-----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Aurretiko argibideak</b> | a) Probaren iraupena ordubetekoa izango da<br>b) Erantzun sei ariketa hauetako bosti<br>c) Ariketa bakoitzak 2 puntu balio du |
|-----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

- 1) Dado bat eta boladun bi kutxa ditugu. A kutxak 2 bola berde, 3 urdin eta 4 beltz ditu. B kutxak 3 bola berde, 5 urdin eta 2 beltz ditu. Dadoa botako dugu bola bat zein kutxatatik atera aukeratzeko: 5 edo 6 lortzen bada, bola B kutxatik aterako dugu. Bestela, A kutxatik. Kalkula ezazu:

a) Ateratako bola urdina izateko probabilitatea.

b) Dadoan 5 edo 6 lortu eta kutxatik ateratako bola urdina izateko probabilitatea.

c) Ateratako bola urdina dela jakinda, dadoan 5 baino gutxiago lortzeko probabilitatea.

- 2) Gozogile batek limoi- eta marrubi-tartak hornitzen ditu. 12 limoi-tarta eta 5 marrubi-tarta saltzen baditu, 520 €-ko etekina lortuko du. 8 limoi-tarta eta 10 marrubi-tarta saltzen baditu, 560 €-ko etekina lortuko du. Kalkulatu zer onura lortzen duen tarta mota bakoitzarekin.

- 3) Irudikatu eta kalkulatu funtzio hauek mugatzen duten esparruaren azalera:

$$f(x) = x^2 - 4x + 4$$

$$g(x) = 2x - 1$$

- 4) Aztertu hazkunde- eta beherapen-tarteak, maximoak eta minimoak, eta egin funtzioaren gutxi gorabeherako marrazki bat:

$$f(x) = x^3 - 3x + 2$$

5) Pertsona batek korrika egitean duen batez besteko abiadura hainbat faktoreren arabera alda daiteke, hala nola egoera fisikoaren, adinaren eta kirol hori egiten duen esperientziaren arabera. Oro har, korrikalari heldu baten abiadura banaketa normal bati egokitzen zaio, eta haren batez besteko abiadura  $5,63\text{ km/h}$  da eta desbiderapen tipikoa ( $0,8\text{ km/h}$ ). Kalkulatu ehuneko hauek:

- a)  $7\text{ km/h}$ -tik gorako abiaduran ibiltzen diren helduen ehunekoa.
- b)  $4\text{ km/h}$  eta  $7\text{ km/h}$  arteko abiaduran ibiltzen diren helduen ehunekoa.

6) 2023an munduan 92,7 milioi auto saldu ziren, eta horietatik 13,7 milioi hibrido entxufagarriak izan ziren %15a inguru. Espainian 950.000 auto inguru saldu ziren.

Espainian saldutako autoak kontuan hartuta, kalkula ezazu kantitate hauek hibrido entxufagarri izateko probabilitateak:

- a) 142.000 unitate baino gutxiago izatea.
- b) 142.000 eta 142.800 unitate bitarte izatea, muga biak barne izanik.

